




Labayru Hiztegia Online Bizkaiera eta Batua (b)uztarturik



ZEINTZUK DIRA HIZTEGI HONEN EZAUGARRIAK?

- *Euskera-gaztelania* eredukoa da.
- Bizkaiera eta Batua (b)uztarturik datoz.
- Bizkaieraren lexikoa finkatzeko lehenengo saio orokorra dozu.
- Euskaltzaindiaren *Hiztegi batuaren* ildotik osoturik dago.
- Lexiko batuaren *corpusa* ugaltzeko ahaleginaz mamindua da.
- Hitzen sinonimo aukera ezin hobea dakartu.
- Euskera biziaren ondarea eta tradizio idatziaren ekarria bertan dozuz.
- 60.000 sarrera nagusi eta 90.000tik gorako adiera ditu.

ZELAN EGIN BEHAR DODAZ BERBA-BILAKETAK?

Hiztegi bi daukazuz kontsultarako, *Labayru Hiztegia* (euskera-gaztelania) eta *Diccionario Labayru* (castellano-euskera). Zoaz, bataren edo bestearen irudiari klik eginda, zeuk gura dozun hiztegiara.

Labayru Hiztegian zagozala, idatzi eizu hutsik dagoan laukian ze berba topau gura dozun; ez badakizu zehatz zelan idazten dan, nahiko izango dozu bertan hasierako silaba bat edota bi idatzita, **-(e)tik hasita** dalako berez datorren bilaketa-modua. Gero, **bilatu** botoiari edo *intro* tekleari sakatu eiozu.

Bilaketa-modu horrezaz gainera, badaezpadan be, beste bilaketa-modu bi be badaukazuz, **berbea osorik** eta **daukala** deritxenak. Lehenengoa hautu ezkerro, artez joango zara tekleau dozun berbara; bigarrena erabilten badozu, ostera, idatzi dozun silaba hori daukien berba guztien zerrendeak urtengo deutsu.

Kontuan euki atzizki, aurrizki, artizki edo konposizino-hizkiren bat topau gura badozu, aurretik edo atzetik gidioia dauela egin behar dozula.

ZER HURRENGO ERAKUTSIKO DEUST?

Zeuk zehaztutako bilaketa-baldintzak beteten dituen berbak erakutsiko deutsuz programeak; berbok zerrendaturik agertuko jatzuz.

Zerrenda horretako berba bakoxtari sakatu ezkerro, horren berbeorren gaineko azalpen linguistiko osoa eukiko dozu, esanguren arabera atondurik.

Esangura bakoxtak bere kategoria gramatikala ekarriko dau, adieraznakiaren ostean; behar danean, marka estilistikoaz, zehaztopen tematikoaz eta izen zientifikoaz be horniduta etorriko da, ordena horretan etorri be.

Esanahi bakotxari jagokozan ordainak hurrengo lerroan pilaturik ikusiko dozuz.

Horren atzean, lantzean behin, sarrera-berbeari jagokon ohar edo azalpen semantiko zein gramatikalen bat be leiduko dozu.

Eta azkeneko lerroan, sarri-sarritan, sarrera-berbearen sinonimorik garrantzitsuenak ipini doguz, alfabetikoz ordenaurik.

- ADIERA ZK. | KAT. GRAM. | MARKA ESTILIST. | ZEHAZT. TEMATIKOA | IZEN ZIENTIFIKOA
- ORDAINAK
- OHARRAK
- SINONIMOAK

Eskumako hegalean, berba nagusiari lotutako lokuzinoak edo azpisarrerak be kontsultagai dagoz; honeen fitxak ikusi gura izan ezkerro, eurotan klik egitea daukazu.

BIZKAIERA ETA BATUA, ZELAN DATOZ BUZTARTURIK?

Labayru Hiztegiak euskera baturako onarturik dagozan berbakaz batera, bizkaiera idatzirako finkatu diran hitzak be badakarz. Ereduaren aldetik, horretara, hiztegi hau arauemoilea edo araugilea da, neurri handi baten behintzat, bizkaierari zein batuari jagokonez.

Bizkaiera eta batua erregistroetako berba baliokideak botoi baten bidez loturik dagoz hiztegi online honetan; berba bikoteok euskalkien botoia goian dabela agiri dira beti.

Konturako, *ule* bizkaierazko hitzak *ile* batuzko berbakidera eroango zaitu goiko botoi horri sakatuta; eta bestetara be bardin-bardin, hau da, *iletik ulera* joan zeintekoz lotura-botoi hori erabilita.

ZELAKO BIALTZE-OHARRAK DAGOZ?

Modu bitakoak, **ikus**i eta **jaso**a oharra daroenak.

1) **ikus**i

- Hiztegi honek batu egin ditu idatzizko zein ahozko erregistroetan maiztasun handikoak diran aldaera grafiko eta fonetikoak. Horreek hutsik datoz baina sarrerea daukie euki, eta sarrereagaz batera **ikus**i bialtze-oharra be bai, zeinek euren forma normatibo nagusira bialtzen gaituan.

Konturako, *jostagailu ikusi jostailu*.

- Bialtze-ohar horrek ez deutso bakarrik aldaera kontuari begiratzen. Badagoz aldaerak izan ez baina hutsik datozen beste berba moltso bi be: batuzko *-atu* aditz amaieradunena eta *-zio* izen amaieradunena, hatan be. Holakoak be **ikusi** bialtze-oharra daukie, sarrera bakar batera bihurtu doguzalako hitz eredu horreetako bizkaierazko eta batuzko formak.

Esaterako, *kantatu ikusi kantau//kantatu*; edota, *administrazio ikusi administrazino//administrazio*.

- Bialtze-ohar horrek daukan atzeneko zeregina da, katigatu egitea eremu semantiko berberako hitzak, halan erabiltzaileoi berba-familiak be opesten jatzuezala.

Kasurako, *anaia ikusi neba*.

2) **jaso**

- Bizkaiera idatzirako eredu-batasuna bultzatu dogu. Batzuetan, barriz, arazoa ez da bape erraza izan, bizkaierazko aldaera batzuk indartsuak diralako ahoz zein idatziz. Holakoetan, hau da, forma bataren zein bestearen alde egiteko errazoiak bardintsuak izan diranetan, forma biok laga dira baina euretariko batari lehentasuna emonda. Horreexek dakarre **jaso** izeneko bialtze-oharra.

Berberako, bizkaierazko *burdi* hitz pisutsuaren parean *gurdi* forma nagusia be badago, berau be bizkaierazkoa. Halan bada, *burdi* berbeak **jaso** *gurdi* bialtze-oharra ekarriko dau, idatzizko bizkaiera estandarerako *gurdi* bultzatu gura dogulako.

LABURDUREN ZERRENDAK

1) *Euskalkiak*

batua	<i>bat.</i>
bizkaiera	<i>bizk.</i>

2) *Kategoria gramatikala*

adberbioa	<i>adb.</i>
adberbio erakuslea	<i>adb. erak.</i>
adberbio galdetzailea	<i>adb. gald.</i>
adberbiozko lokuzinoa	<i>adb. lok.</i>
aditz defektiboa	<i>ad. defek.</i>
aditz iragangaitza	<i>da</i>
aditz iragangaitza/nori	<i>jako</i>
aditz iragankorra	<i>dau</i>
aditz iragankorra/nori	<i>deutso</i>
aditz lokuzinoa	<i>ad. lok.</i>
aditzlaguna	<i>adlag.</i>
adjetiboa	<i>adj.</i>
artizkia	<i>artizk.</i>
atzizkia	<i>atzizk.</i>
aurrizkia	<i>aurrizk.</i>
baldintzazko menderagailua	<i>mend. bald.</i>

denporazko menderagailua	<i>mend. denp.</i>
determinatzailea	<i>det.</i>
emendiozko juntagailua	<i>junt. emend.</i>
emendiozko lokailua	<i>lokail. emend.</i>
emendiozko menderagailua	<i>mend. emend.</i>
erlatibozko menderagailua	<i>mend. erl.</i>
graduatzaileria	<i>grad.</i>
helburuzko menderagailua	<i>mend. helb.</i>
inbarrablea	<i>inb.</i>
interjekzioa	<i>interj.</i>
izen arrunta	<i>iz.</i>
izen berezia	<i>iz. ber.</i>
izen lokuzinoa	<i>iz. lok.</i>
izenlaguna	<i>izlag.</i>
izenordain alkarkaria	<i>alkark.</i>
izenordain bihurkaria	<i>bihurk.</i>
izenordain erakuslea	<i>izord. erak.</i>
izenordain erakusle indartua	<i>eraku. indart.</i>
izenordain galdetzailea	<i>izord. gald.</i>
juntagailu aurkaria	<i>junt. aurk.</i>
juntagailu banakaria	<i>junt. banak.</i>
juntagailu hautakaria	<i>junt. haut.</i>
kausazko lokailua	<i>lokail. kaus.</i>
kausazko menderagailua	<i>mend. kaus.</i>
konparazinozko menderagailua	<i>mend. konp.</i>
konposizino-hizkia	<i>konpos. hizk.</i>
lokailu aurkaria	<i>lokail. aurk.</i>
lokailu hautakaria	<i>lokail. haut.</i>
menderagailu kontzesiboa	<i>mend. kontzes.</i>
moduzko menderagailua	<i>mend. mod.</i>
ondoriozko lokailua	<i>lokail. ond.</i>
onomatopeia	<i>onomat.</i>
partikulea	<i>partik.</i>
pertsona-izenordaina	<i>perts. izord.</i>
pertsona-izenordain indartua	<i>izord. indart.</i>
postposizinoa	<i>postp.</i>
siglea	<i>sig.</i>
zenbatzaile banatzailea	<i>zenb. banatz.</i>
zenbatzaile kardinala	<i>zenb. kard.</i>
zenbatzaile ordinala	<i>zenb. ord.</i>
zenbatzaile orokorra	<i>zenb. orok.</i>
zenbatzaile zehaztubakoa	<i>zenb. zehazbak.</i>

3) *Marka estilistikoa*

adierazkorra	<i>adkor.</i>
arkaikoa	<i>ark.</i>
arraroa	<i>arr.</i>
eufemismoa	<i>eufem.</i>
ironikoa	<i>iron.</i>
irudizkoa	<i>irud.</i>
kolokiala	<i>kolok.</i>
lagunartekoa	<i>lgart.</i>
letra larriz	<i>larr.</i>
neologismoa	<i>neol.</i>
peioratiboa	<i>peior.</i>
pluralez	<i>pl.</i>
sarritan pluralez	<i>sarr. pl.</i>
umeena	<i>ume.</i>
umoristikoa	<i>um.</i>
zaharra	<i>zahar.</i>
zakarkeria	<i>zakar.</i>

4) Zehaztapen tematikoa

Administrazioa	<i>Admin.</i>
Albaitaritza	<i>Albait.</i>
Anatomia	<i>Anat.</i>
Arkitektura	<i>Ark.</i>
Arte Grafikoak	<i>Art. Graf.</i>
Artea	<i>Art.</i>
Astrologia	<i>Astrol.</i>
Astronomia	<i>Astron.</i>
Biokimika	<i>Biokim.</i>
Biologia	<i>Biol.</i>
Botanika	<i>Bot.</i>
Ekologia	<i>Ekol.</i>
Ekonomia	<i>Ekon.</i>
Erlijinoa	<i>Erl.</i>
Filosofia	<i>Fil.</i>
Fisika	<i>Fis.</i>
Fisika eta Kimika	<i>Fis./Kim.</i>
Fotografia	<i>Fotogr.</i>
Geografia	<i>Geogr.</i>
Geologia	<i>Geol.</i>
Gudaritza	<i>Gudar.</i>
Historia	<i>Hist.</i>
Hizkuntzalaritza	<i>Hizk.</i>
Informatika	<i>Inform.</i>
Ingeniaritza	<i>Ingen.</i>
Itsasoa	<i>Itsas.</i>
Jokoak	<i>Jok.</i>
Kimika	<i>Kim.</i>
Kirolak	<i>Kir.</i>
Literatura	<i>Lit.</i>
Logika	<i>Log.</i>
Nekazaritza eta Abeltzaintza	<i>Nekaz./Abeltz.</i>
Matematika	<i>Mat.</i>
Medikuntza	<i>Med.</i>
Meteorologia	<i>Meteor.</i>
Mikologia	<i>Mik.</i>
Mineralogia	<i>Mineral.</i>
Mitologia	<i>Mit.</i>
Musika	<i>Mus.</i>
Ohiturak	<i>Ohit.</i>
Politika	<i>Polit.</i>
Tauromakia	<i>Taurom.</i>
Zientzia	<i>Zientz.</i>
Zoologia	<i>Zool.</i>
Zuzenbidea	<i>Zuz.</i>